



**EIBARKO UDALAK BANAKAKO
EBALUAZIO PROZEDURAREN
BIDEZ KIROL-ERAKUNDEEN
OHIKO JARDUERAK
FINANTZATZEKO
DIRULAGUNTZAK EMATEKO
DEIALDIA**

**CONVOCATORIA PARA LA
CONCESIÓN POR PARTE DEL
AYUNTAMIENTO DE EIBAR DE
SUBVENCIONES PARA LA
FINANCIACIÓN DE ACTIVIDADES
ORDINARIAS DE ENTIDADES
DEPORTIVAS MEDIANTE EL
PROCEDIMIENTO DE EVALUACIÓN
INDIVIDUALIZADA**

Lehena.- Araudi erregulatzailea.

Deialdi honen xede diren dirulaguntzak emateko araubidea hauxe da:

a) Azaroaren 17ko 38/2003 Legea, dirulaguntzetarako lege orokorra.

b) Uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua, Dirulaguntzen Lege Orokorraren Erregelamendua onartzen duena.

c) Eibarko Udalaren Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorra, 2012ko azaroaren 26ko Osoko bilkurak onartu eta 2013ko urtarrilaren 17ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitara eman zena.

d) Deialdi honetan jasotako klausulak.

Bigarrena.- Dirulaguntzaren xedea.

Deialdi honen xedea da Eibarko Udalak kirol-erakundeen ohiko jarduerak finantzatzeko dirulaguntzak emateko baldintzak arautzea, banakako ebaluazio-erregimeneko zuzeneko emakida prozeduraren bidez.

Hirugarrena.- Diruz lagundu daitezkeen jardunak eta gastuak.

1.- Kirol-erakundeen ohiko jarduerari dagozkien gastuak baino ez dira diruz lagunduko.

Primero.- Normativa reguladora.

La concesión de las subvenciones objeto de esta convocatoria se regula por:

a) La Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones (LGS).

b) El Real Decreto 887/2006, de 21 de julio, por el que se aprueba el Reglamento de la Ley General de Subvenciones.

c) La Ordenanza General de Subvenciones del Ayuntamiento de Eibar, aprobada por el Pleno Municipal en sesión celebrada el día 26 de noviembre de 2012, y publicada en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa de fecha 17 de enero de 2013.

d) Las cláusulas contenidas en la presente convocatoria.

Segundo.- Objeto de la subvención.

El objeto de la presente convocatoria es la regulación de las condiciones para la concesión por parte del Ayuntamiento de Eibar de subvenciones para la financiación de actividades ordinarias de entidades deportivas mediante el procedimiento de concesión directa en régimen de evaluación individualizada

Tercero.- Actuaciones y gastos subvencionables.

1.- Son subvencionables exclusivamente los gastos correspondientes a actividades ordinarias de entidades deportivas.

Dirulaguntzetatik kanpo geratuko dira, dirulaguntza izendunen bidez Eibarko Udalak finantzaturako ezohiko jarduerak.

Halaber, dirulaguntza-esparrutik kanpo geratuko dira kirol hutsekoak ez diren jarduerak.

2.- Diruz lagun daitezkeen gastutzat joko dira dirulaguntzaren xede den jarduerarekin zalantzarik gabe bat datozenak, ezinbestekoak direnak, eta deialdian ezarritako epean egiten direnak.

3.- Diruz lagundutako gastuen erosketakostua ezin da sekula izan merkatuko balioa baino handiagoa.

4.- Egindako gastutzat hartuko da deialdi honetan zehaztutako justifikazio-aldia amaitu aurretik benetan ordaindutakoa.

5.- Diruz lagun daitekeen gastuaren zenbatekoa 15.000 €-tik gorakoa (BEZik gabe) bada hornidura- eta zerbitzu kontratueterako, edo 40.000 €-tik gorakoa (BEZik gabe) obra-kontratueterako, onuradunak hornitzaile desberdinen hiru eskaintza eskatu beharko ditu gutxienez, obrarako, zerbitzua emateko edo ondasuna entregatzeko konpromisoa hartu baino lehen, salbu eta ezaugarri bereziak izateagatik, merkatuan ez badago eskaintza horiek egiten, ematen edo ordezten dituzten erakundeen kopuru nahikorik; edo, salbu eta gastua dirulaguntzaren aurretik egin bada.

Aurkeztutako eskaintzen arteko aukeraketa, justifikazioan edo, hala badagokio, dirulaguntzaren eskabidean aurkeztu beharko dena, efizientzia- eta ekonomia irizpideen arabera egingo da, eta berariaz justifikatu beharko da memoria batean proposamen ekonomiko onuragarriena aukeratu ez bada.

6.- Ondasun inbentariagarrien

Se excluirán del ámbito de la subvención, las actividades extraordinarias financiadas por el Ayuntamiento de Eibar mediante subvenciones nominativas.

También se excluirán del ámbito de la subvención las actividades que no sean estrictamente deportivas.

2.- Se considerarán gastos subvencionables aquellos que de manera indubitada respondan a la naturaleza de la actividad subvencionada, resulten estrictamente necesarios y se realicen en el plazo establecido en la presente convocatoria.

3.- En ningún caso el coste de adquisición de los gastos subvencionables podrá ser superior al valor de mercado.

4.- Se considerará gasto realizado el que ha sido efectivamente pagado con anterioridad a la finalización del período de justificación determinado en esta convocatoria.

5.- Cuando el importe del gasto subvencionable supere 15.000 € (IVA excluido) para los contratos de suministro y servicios, o 40.000 € (IVA excluido), para los contratos de obras, el/la beneficiario/a deberá solicitar como mínimo tres ofertas de diferentes proveedores, con carácter previo a la contratación del compromiso para la obra, la prestación del servicio o la entrega del bien, salvo que por sus especiales características no exista en el mercado suficiente número de entidades que los realicen, presten o suministren, o salvo que el gasto se hubiere realizado con anterioridad a la subvención.

La elección entre las ofertas presentadas, que deberán aportarse en la justificación, o, en su caso, en la solicitud de subvención, se realizará conforme a criterios de eficiencia y economía, debiendo justificarse expresamente en una memoria la elección cuando no recaiga en la propuesta económica más ventajosa.

6.- Con respecto a la amortización de los

amortizazioari dagokionez, diruz laguntzeko modukoak izateko, baldintza hauek bete beharko dira:

- a) Dirulaguntzak ondasunen erosketarako ez erabiltzea.
- b) Amortizazioa kontabilitateko arau orokor onartuen arabera kalkulatzeko.
- c) Kostua bakarrik dirulaguntzaren xede den aldikoa izatea.

7.- Finantza-gastuak, lege- edo finantza-aholkularitzarako gastuak, notario- eta erregistro. gastuak, dirulaguntza jaso duen proiektua egiteko peritu-gastuak eta berariazko administrazio-gastuak, horiek denak dirulaguntza jaso dezaketen gastutzat joko dira baldin eta zuzeneko lotura badute dirulaguntzaren xede den jarduerarekin eta ezinbestekoak badira hura behar bezala prestatu nahiz burutzeko.

8.- Tributuak dirulaguntza jaso dezaketen gastuak dira dirulaguntzaren onuradunak zuzenean ordaintzen dituenen. Ez dira inola ere diruz laguntzeko moduko gastutzat hartuko zeharkako zergak, baldin eta berreskuratu edo konpentsatu badaitezke, ezta errentaren gaineko zerga pertsonalak ere.

9.- Zeharkako kostuak dirulaguntzaren xede den jarduerari egotzi beharko zaizkio behar adinekoa edo arrazoizkoa den zatian, orokorrean onartuak diren kontabilitateko printzipio eta arauari jarraituz, eta, edozein kasutan ere, halako kostuak jarduera benetan egin den aldiari dagozkion heinean.

10. Auditoretza-txostenaren kostua diruz lagundu ahal izango da, gehienez ere emandako dirulaguntzaren zenbatekoaren % 3ekin.

11. Bidaia-gastuengatik dietei dagokienez, honako muga hauekin lagunduko dira diruz:

bienes inventariables el carácter subvencionable de los mismos estará sujeto a las siguientes condiciones:

- a) Que las subvenciones no hayan contribuido a la compra de los bienes.
- b) Que la amortización se calcule de conformidad con las normas de contabilidad generalmente aceptadas.
- c) Que el coste se refiera exclusivamente al período subvencionable.

7.- Los gastos financieros, los gastos de asesoría jurídica o financiera, los gastos notariales y registrales y los gastos periciales para la realización de la actividad subvencionada y los de administración específicos son subvencionables si están directamente relacionados con la actividad subvencionada y son indispensables para la adecuada preparación o ejecución de la misma.

8.- Los tributos son gasto subvencionable cuando el/la beneficiario/a de la subvención los abona efectivamente. En ningún caso se consideran gastos subvencionables los impuestos indirectos cuando sean susceptibles de recuperación o compensación ni los impuestos personales sobre la renta.

9.- Los costes indirectos habrán de imputarse por el/la beneficiario/a a la actividad subvencionada en la parte que razonablemente corresponda de acuerdo con principios y normas de contabilidad generalmente admitidas y, en todo caso, en la medida en que tales costes correspondan al período en que efectivamente se realiza la actividad.

10. Será subvencionable el coste del informe auditor con un máximo del 3% del importe de la subvención concedida.

11. Con respecto a las dietas por gastos de desplazamiento, serán subvencionables con los siguientes límites:

Kirolarientzako eta entrenatzaileentzako entrenamenduetara joategatiko konpentsazioak:

- Partikularren ibilgailuetan egindako bidaiak: horrela kontabilizatuko dira, diruz-lagundutako jarduerak pertsonak lekualdatzea eskatu eta hori garraio pribatua egiten denean. Zenbatekoa, gehienez ere, 0,29 eurokoa izango da egindako kilometro bakoitzeko, gehi, hala badagokio, autopistaren peajea eta aparkalekua. Egindako kilometrotzat joko dira Eibarren eta helmugaren artean Google Maps aplikazioaren bidez kalkulaturako biderik laburrena. Autopistako bidesaria abonatzeko, tiketaren bidez egiaztatu beharko da zer gastu egin den.
- Garraio publikoan egindako bidaiak. Bidaiaren zenbatekoa ordainduko da, aldez aurretik bidaiari dagokion tiketa aurkeztuta, edo, hala badagokio, faktura.

Txapelketa arruntetara bidaiatzea (bidaia, janaria, ostatu hartzea)

- Partikularren ibilgailuetan egindako bidaiak: horrela ordainduko dira partikularrek egin dituzten gastuak, baldin eta diruz lagundutako jarduerak pertsonak bidaiatzea eskatzen bada eta bidaia ibilgailu pribatuetan egiten bada. Kilometroko, gehienez ere, 0,29 euro ordainduko da, gehi, hala badagokio, autopistako bidesariaren eta aparkalekuaren kostuak. Egindako kilometrotzat joko dira Eibarren eta helmugaren artean Google Maps aplikazioaren bidez kalkulaturako biderik laburrena. Autopistako bidesaria eta parkina abonatzeko, aurkeztu egin beharko dira fakturak edo tiketak gastua justifikatzeko.
- Garraio publikoan egindako bidaiak: bidaiaren zenbatekoa ordainduko da, aldez aurretik bidaiari dagokion tiketa

Compensaciones a deportistas y entrenadores/as por acudir a entrenamientos:

- Desplazamientos realizados en vehículos particulares: se contabilizarán de esta forma los gastos en que incurran particulares cuando la actividad subvencionada requiera el traslado de personas y éste se realice en transporte privado. El importe será, como máximo, de 0,29 € por km recorrido más, en su caso, el coste del peaje de la autopista y parking. Los kilómetros recorridos serán los que correspondan a la distancia más corta entre Eibar y el destino calculada con la aplicación Google Maps. Para el abono del peaje de la autopista se deberán presentar tickets justificando el gasto realizado.
- Desplazamientos realizados en transporte público. Se abonará el importe del desplazamiento, previa presentación del correspondiente ticket o, en su caso, factura.

Desplazamientos a competiciones ordinarias (viajes, comidas, alojamiento).

- Desplazamientos realizados en vehículos particulares: se abonarán de esta forma los gastos en que incurran particulares cuando la actividad subvencionada requiera el traslado de personas y éste se realice en transporte privado. El importe que se abonará será como máximo de 0,29 € por km recorrido más, en su caso, el coste del peaje de la autopista y parking. Los kilómetros recorridos serán los que correspondan a la distancia más corta entre Eibar y el destino calculada con la aplicación Google Maps. Para el abono del peaje de la autopista de del parking se deberán presentar facturas o tickets justificando el gasto realizado.
- Desplazamientos realizados en transporte público: se abonará el importe del desplazamiento, previa

aurkeztuta, edo, hala badagokio, faktura.

- Ostatu hartzearen eta mantenu-gastuak: dagozkien fakturak aurkeztu behar dira, kirol elkartearen izenean eginak. Ez da tiketik onartuko.

12.- Honako hauek ez dira inola ere diruz lagun daitezkeen gastutzat hartuko:

- a) Banku-kontuetako interes zordunak.
- b) Interesak, errekariguak eta zehapen administratiboak eta penalak.
- c) Auzi-prozeduretako gastuak.
- d) Ondasun inbentariagarriak eskuratzea.
- e) Inbertsio-gastuak egitea.
- f) Finantza-errentamenduaren edo leasing bidez finantzatutako inbertsioak.
- g) Hoteleko aparteko gastuak eta luxuzko gastuak, edozein motatakoak direla ere.
- h) Erakunde onuradunaren zuzendaritza-organoei, kirolariei, entrenatzaileei edo beste edozein langileri edozein motatako ordainsariak edo kalte-ordainak ematea, betiere erakundeari lankontratu bidez lotuta ez badaude.

Laugarrena.- Aurrekontu-kredituak eta dirulaguntzen zenbatekoa.

Dirulaguntza hauek emateko udal Aurrekontuaren zenbateko hauek erabiliko dira:

Partida: 1.0900.481.02.341.00

ZENBATEKOA: 250.000 €.

Baimendutako kreditua agortu ondoren erantzun gabeko dirulaguntza eskaerak baldin badaude, eta eskumena duen organoak hala erabakiz gero, handitu ahal izango da dirulaguntzen aurrekontu-partida, ebatzi gabekoei erantzuteko.

presentación del correspondiente ticket o, en su caso, factura.

- Gastos de alojamiento y manutención: se deberán presentar las correspondientes facturas a nombre de la asociación deportiva. No se admitirán tickets.

12.- En ningún caso serán gastos subvencionables:

- a) Los intereses deudores de las cuentas bancarias.
- b) Intereses, recargos y sanciones administrativas y penales.
- c) Los gastos de procedimientos judiciales.
- d) La adquisición de bienes inventariables.
- e) La realización de gastos de inversión.
- f) Las inversiones financiadas mediante arrendamiento financiero o leasing.
- g) Gastos extras de hotel y gastos suntuarios de cualquier naturaleza.
- h) Honorarios o indemnizaciones de cualquier tipo a órganos directivos de la entidad beneficiaria, deportistas, entrenadores/as o cualquier otro personal, siempre que no estén vinculados a la entidad por contrato laboral.

Cuarto.- Créditos presupuestarios y cuantía de las subvenciones.

Se destinará a la concesión de estas subvenciones las siguientes cantidades del presupuesto de la Corporación:

Partida: 1.0900.481.02.341.00

Importe: 250.000 €.

Si una vez agotado el crédito autorizado existen solicitudes sin atender, y en el caso de que así se acuerde por el órgano competente, se podrá ampliar la partida presupuestaria a la que están imputadas las subvenciones para atender las no resueltas.

Zenbateko gehigarria eraginkorra izateko baldintza da dirulaguntza ematea ebatzi aurretik kreditu-gehikuntza baten ondorioz kreditua erabilgarri deklaratzeko, hala bada kasua, dagokion aurrekontu-aldaketa onartu ondoren.

Bosgarrena.- Dirulaguntza emateko araubidea.

Dirulaguntza zuzenean emango da horretarako dagoen araubidearen arabera eta ebaluazio bakoitzaren sistema bidez.

Seigarrena.- Dirulaguntza eskatzeko baldintzak.

Honako baldintza hauek betetzen dituzten irabazi-asmorik gabeko kirol-talde, kirol-erakunde edo elkarteek eskuratu ahal izango dituzte dirulaguntza horiek, betiere DLOren 13.2 artikuluan ezarritako debekurik ez badute:

- a) Eusko Jaurlaritzaren Kirol Elkarte eta Entitateen Erregistroan inskribatuta egotea.
- b) Sustatu edo praktikatu nahi den kirol horretako Gipuzkoako kirol federazioari gutxienez atxikitakoa izatea edo, lurralde mailako Federazioari izan ezean, euskal Federazioari atxikia egotea.
- c) Eibarko Kirol Patronatuko Kirol Taldeen eta Elkartearen Erregistroan inskribatuta egotea.
- d) Urterako edo denboraldirako euskara plana izatea, Udaleko Euskara Zerbitzuak balidatua.

Zazpigarrena.- Prozedura bideratzeko eta ebatzeko eskumena duten organoak.

La efectividad de la cuantía adicional queda condicionada a la declaración de disponibilidad del crédito como consecuencia de una ampliación de crédito, en su caso, previa aprobación de la modificación presupuestaria que proceda, en un momento anterior a la resolución de la concesión de la subvención.

Quinto.- Régimen de concesión de subvención

La concesión se efectuará en régimen de concesión directa mediante el sistema de evaluación individualizada.

Sexto.- Requisitos para solicitar la subvención

Podrán acceder a estas subvenciones, siempre que no incurran en ninguna de las prohibiciones que se establecen en el artículo 13.2 de la LGS, los clubes, entidades o asociaciones deportivas sin ánimo de lucro que cumplan los siguientes requisitos:

- a) Estar inscritas en el Registro de Asociaciones y Entidades Deportivas del Gobierno Vasco.
- b) Estar adscritas por lo menos a una federación deportiva territorial gipuzkoana, o a una federación vasca en el caso de no existir federación territorial de la modalidad que tenga por objeto su promoción o práctica.
- c) Estar inscrito en el Registro de Asociaciones y Clubes Deportivos del Patronato Municipal de Deportes de Eibar.
- d) Disponer de un plan de euskera (correspondiente al año o temporada), validado por el Servicio Municipal de Euskera.

Séptimo.- Indicación de los órganos competentes para la instrucción y resolución del procedimiento.



Eibarko Udaleko Kultura sailak bideratuko du prozedura.

Dirulaguntza ematea ebaztea Alkateari dagokio. Onuradunek 15 eguneko epea izango dute dirulaguntzari ezetza emateko; epe hori, ebazpenaren jakinarazpena jasotzen dutenetik zenbatuko da. Epe horretan ez badute eman berariazko ukorik, onuradunek dirulaguntza onartu egin dutela ulertuko da.

Zortzigarrena.- Eskaerak aurkezteko epea eta tokia.

Dirulaguntzak eskuratzeko eskabidea aurkezteko epea **deialdi honen laburpena Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean hasiko da eta 30 egun naturaleko epean bukatuko da.** Eskabidea deialdia egin duen organoari zuzenduko zaio, onuradunak edo horren izenean diharduenak izenpetuta eta dagokion dokumentazioa atxikita. Azken eguna baliogabea izango balitz (larunbata, igandea edo jaieguna), hurrengo lehenengo egun balioduneraino luzatuko litzateke.

Dirulaguntza eskaerak **elektronikoki** egingo dira www.eibar.eus udal webgunetik. Tramitea elektronikoki egiteko ziurtagiri digital bat (B@K-Q, NAN elektronikoa, IZENPE txartela, etab.) edukitzea beharrezkoa da.

Bederatzigarrena.- Ebazteko eta jakinarazteko epea.

Ebazteko eta jakinarazteko gehieneko epea bi hilabetekoa izango da, eskaera egin den egunetik zenbatuta.

Hamargarrena.- Dirulaguntza eskaerarekin batera ekarri behar diren dokumentuak eta argibideak.

La instrucción del procedimiento se desarrollará por el Departamento de Cultura del Ayuntamiento de Eibar.

La resolución de la concesión competará al Alcalde. Los/as beneficiarios/as dispondrán de un plazo de 15 días naturales para renunciar a la subvención, contados desde el momento de la notificación de la resolución. Se entenderá aceptada la subvención por parte de las personas beneficiarias si en el plazo anteriormente indicado no han manifestado expresamente la renuncia.

Octavo.- Plazo y lugar de presentación de solicitudes.

El plazo de presentación de las solicitudes de obtención de subvenciones, dirigidas al órgano convocante y suscritas por el/la beneficiario/a o persona que lo represente, junto con la documentación aneja, **comenzará al día siguiente de la publicación del extracto de la presente convocatoria en el Boletín Oficial de Gipuzkoa y finalizará en el plazo de 30 días naturales.** Si el último día fuese inhábil (sábado, domingo o festivo) se trasladará al primer día hábil siguiente.

Las solicitudes de subvención deberán realizarse **electrónicamente** a través de la página web municipal, www.eibar.eus. Para realizar el trámite electrónicamente es necesario disponer de un certificado digital (B@K-Q, DNI electrónico, tarjeta de IZENPE, etc.).

Noveno.- Plazo de resolución y notificación.

El plazo máximo para la resolución y su notificación será de dos meses desde la fecha de presentación de la solicitud de subvención.

Décimo.- Documentos e informaciones que deben acompañarse a la petición de subvención.



Elektronikoki bete behar den inprimakiari honako dokumentazio hau erantsiko zaio:

- a) Entitate eskatzailearen (klub, entitate edo kirol-elkartea) IFZ.
- b) Legezko ordezkapenaren kasuan, legezko ordezkariaren NANA edo balio bereko dokumentua, eta ordezkariaren egiaztapena, dokumentu bidez. Egiaztapena zuzenbidean bidezkoa den edozein bide erabiliz egin daiteke (notario-ahalordez, eskritura bidez...). Ordezkapena Gipuzkoako Foru Aldundiko legezko ordezkarien erroldan erregistratuta egonez gero, ez da dokumentazio hau aurkeztu beharko.
- c) Eibarko Udalarari dirulaguntza eskatzen zaion lehenengo aldia bada, edo entitatearen estatutuetan aldaketarik egin bada, entitatearen estatutuak, eta, horrekin batera, Eusko Jaurlaritzaren Kirol-Elkarte eta -Entitateen erregistroan inskribatuta egotearen egiaztagiria.
- d) Eskatzailearen banku-kontuaren titulartasuna egiaztatzen duen agiria, elkarte eskatzaileak izan behar du haren titularra. Horretarako dokumentu hauetako edozeinek balio izango du kontuaren laburpena, libreta, banketxeak egindako egiaztagiria, edo "Titular-kontua" izeneko orria (udal webgunean, www.eibar.eus, eskuragarri) behar bezala beteta banketxeak emandako zigiluarekin.
- e) Gipuzkoako lurraldeko kirol-federazio bati atxikia egotearen egiaztagiria, edo, kirol horretako lurraldeko federaziorik egongo ez balitz, euskal federazio bati atxikia egotearen egiaztagiria.
- f) Elkartearen ohiko gastuen eta diru-sarreraren urteko aurrekontua, Elkartearen Batzar Nagusiak onetsia (adieraziko da ea aurrekontua urtekoa –

Esta es la documentación a adjuntar al formulario que se cumplimentará electrónicamente:

- a) NIF de la entidad solicitante (club, entidad o asociación deportiva).
- b) En caso de representación legal, DNI o documento equivalente de el/la representante legal y acreditación documental de la representación. La acreditación podrá hacerse por cualquier medio válido en derecho (poderes notariales, escrituras...). No será necesario presentar esta documentación en caso de que la representación esté registrada en el censo de representación legal de la Diputación Foral de Gipuzkoa.
- c) En caso de realizar la solicitud de subvención al Ayuntamiento de Eibar por primera vez o haber realizado algún cambio en los estatutos de la entidad, estatutos de la entidad, junto con el justificante de su inscripción en el Registro de Asociaciones y Entidades deportivas del Gobierno Vasco.
- d) Documento justificativo de la titularidad de la cuenta bancaria de el/la solicitante, que tiene que coincidir con la identidad de la entidad solicitante. Será válido cualquiera de los siguientes documentos: extracto bancario; libreta; certificado expedido por la entidad bancaria o el impreso "Titular-cuenta" (disponible en en la página web municipal, www.eibar.eus) debidamente cumplimentado y sellado por la entidad bancaria.
- e) Justificante de la adscripción a una federación deportiva territorial gipuzkoana o a una federación vasca, en el caso de no existir federación territorial de ese deporte.
- f) Presupuesto anual de gastos e ingresos ordinarios de la Asociación aprobado por la Asamblea General de la Asociación (se indicará si el presupuesto es por año-

2022 – den edo denboraldikoa – 2021eko iraila-2022ko abuztua).

Aurrekontuan gastu eta diru-sarrera arrunten aurreikuspena jasoko da, gastuaren edo sarreraren izaeraren arabera behar bezala taldekatuta.

1. OHARRA: Dirulaguntza hau eskatzen duten kirol elkarten urteko aurrekontu arruntetik kanpo geratuko dira Eibarko Udalak dirulaguntza izendunen bidez finantzatutako ezohiko jarduerak.

2. OHARRA: Halaber, kirol-elkarten urteko aurrekontu arruntetik kanpo geratuko dira elkarteek egindako jarduerak, baldin eta kirol-jarduera hutsak ez badira.

- g) Entitatearen kirol-denboraldiko jarduera arruntaren memoria, behar bezala beteta, udal webgunean (www.eibar.eus) eskuragarri dagoen ereduari jarraituz. Memorian egongo dira uneko denboraldian federazio-lizentzia indarrean izan duten kirolari eta teknikarien zerrenda, gastu eta diru-sarreraren aurrekontua, ikasleen eta kirol-hastapenetako taldeen zerrenda, eta jarduera-programaren gainerako informazioa.
- h) Elkarte eskatzailea zerga-betebeharretan egunean dagoela esaten duen ziurtagiria, horretan eskumena duen Ogasun Sailak luzatutakoa.
- i) Dirulaguntzaren xede den jarduerarako beste dirulaguntzarik eskatu edo lortu badira, erantzukizunpeko adierazpena eskatutako edo lortutako beste dirulaguntzei buruz (eredua eskuragarri udal-webgunean, www.eibar.eus).

Ez da beharrezkoa izango Udalaren eskuetan dagoen dokumentazioa berriro aurkeztea, aurretik beste administrazio-

2022- o por temporada -septiembre 2021-agosto 2022).

El presupuesto contendrá una previsión de los gastos e ingresos ordinarios, debidamente agrupados por la naturaleza del gasto o del ingreso.

NOTA 1: Se excluirán del presupuesto ordinario anual de las Asociaciones Deportivas solicitantes de esta subvención, las actividades extraordinarias financiadas por el Ayuntamiento de Eibar mediante subvenciones nominativas.

NOTA 2: También se excluirán del presupuesto ordinario anual de las asociaciones deportivas las actividades por ellas realizadas que no sean estrictamente deportivas.

- g) Memoria de la actividad ordinaria de la entidad referente a la temporada deportiva debidamente cumplimentada según modelo disponible en la web municipal (www.eibar.eus). La memoria incluye el listado de deportistas y técnicos/as con licencia federativa en vigor durante la temporada en curso, presupuesto de gastos e ingresos, relación de alumnos/as y grupos de iniciación deportiva e información sobre el programa de actividades.
- h) Certificación acreditativa emitida por la Hacienda competente de que la Asociación solicitante se encuentra al corriente en sus obligaciones tributarias.
- i) En caso de haber solicitado u obtenido otras subvenciones para la actividad objeto de subvención, declaración responsable sobre otras subvenciones solicitadas o concedidas debidamente cumplimentada (modelo disponible en la web municipal, www.eibar.eus).

No será necesario presentar aquella documentación que ya se encuentre en poder del Ayuntamiento por haberse

espediente batzuetarako aurkeztu izan bada.

Prozedura hau tramitzeko betebeharrak betetzen direla egiaztatzeko, bai eskaera egiterako unean, bai hurrengo berrikuspenetan, Eibarko Udalak honako informazio hau kontsultatuko du, bitarteko telematikoen bidez:

- Udalarekiko ordainketan egunean egotea.
- Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak ordainduta izatea.
- Legezko ordezkapenen kasuan, ordezkapena Gipuzkoako Foru Aldundiko legezko ordezkarien erroldan erregistratuta egotea.
- Udaleko Euskara Zerbitzuak balidatutako urterako edo denboraldirako euskara plana izatea.

Hamaikagarrena.- Akatsak zuzentzea eta aurre-ebaluazioa.

